

A2.1 MAILA

SARE SOZIALAK

Irakurmenaren ulermena.

Elkarrizketa bat irakurriko duzue. Testuan, kazetariak egindako galderak falta dira.
Lotu galderak eta erantzunak.

IGOR LETURIA: “ INTERNETEK BIZITZEKO MODUA ALDATU DIGU”

-----1----

Batzuk bai eta beste batzuk ez. Gazteen artean gehienak bai, oso naturala zaie Internet. Hala ere, mundo mailan, jende askok ez dauka konturatzeko aukerarik ere.

----2----

Izugarriak. Pentsa nola aldatu duen hamar urte eskasetan gu guztion lan egiteko eta bizitzeko modua, eta hau hasiera besterik ez da.

----3---

Momentuz oinez, baina laster, nork daki.

----4---

Ez du hori jakin behar. Erakutsi behar dioguna nola atera probetxua ordenagailuari eta Interneti bere eguneroko gauzetarako.: erosketak egin eta etxera ekartzeko, Imstersoko bidaiak hartzeko, Erasmus dagoen bilobarekin bideokonferentziak dohainik izateko...

----5---

Agian auzokideak merezi ez duelako izango da, eta sareak behintzat jende interesgarriagoa ezagutzeko aukera ematen digu.

LOTU GALDERAK ETA ERANTZUNAK.

A.- Oinez edo sagua erabiltzen. Zer ikasten dute haurrek lehenago?

B.- Konturatzen al gara mundua klik bakar batera daukagula?

C.- Aitonak galdetu du zer den softwarea...

D.- Telefonoak eta autoak mundua aldatu zuten aurreko mendean. Internetek aldaketak ekarriko ditu?

E.- Urrutiko ezezagun batekin hitz egin dezakegu. Sarritan ez dugu ondoko auzokidea ezagutzen...

Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5
Galderak					

IRAKURMENAREN ARANTZUNAK

Hutsuneak	1	2	3	4	5
Galderak	B	D	A	C	E

A2.1 MAILA

MINTZAMENA LANTZEKO.

SARE SOZIALAK.

Azken bolada honetan, sare sozialak gero eta garrantzia handiago hartzen ari dira gure bizitzan.

EGITEKOA.

Bikoteka hitz egin sare sozialei buruz. Ondoko galdera hauek lagungarriak izango dira.

- Sare sozialak erabiltzen dituzu? Zeintzuk? Noiztik?...
- Beharrezkoak iruditzen zaizkizu?
- Gehiegi erabiltzen ditugu? Zergatik?
- Zein adinarekin gomendagarriak dira?....